

## Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak datuak enpresentzat baliozko elementu nola bihurtu azaltzeko jardunaldia antolatu dute

- *Jardunaldia, sortzen eta biltegitratzen diren datuak enpresentzat baliozko elementutan eraldatzeko interesa duten enpresei zuzenduta egon da.*
- *Jardunaldi hau "Gipuzkoa Tecnológica" programaren 17. edizioan barneratzen da.*
- *Hitzaldiak Miramongo Teknologia Elkartegiko Eraikin Nagusian burutu dira eta 200 pertsona baino gehiago izan dira bertan.*

**Donostia - 2019ko martxoaren 26a** - Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, SPRI eta Miramon Enpresa Digitalarekin batera jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute "**Datuak balioan eraldatzeko erronka nire enpresarentzat**" izenburupean. Jardunaldia gaur, asteartea, martxoak 29, burutu da Donostiako Miramongo Teknologia Elkartegiko Eraikin Nagusian eta 200 pertsonatik gora izan dira bertan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Tecnológica"ren hamazazpigarren edizioan barneratzen da eta etekina ateratzeko helburuarekin datuak balioan eraldatu nahi duten enpresei zuzendua egon da.

Sortzen eta biltegitratzen diren datuen kopurua esponentziala da, baina hau ez da nahikoa. Balioa izan dezaten, erreminta berrietan pentsatu beharra daukagu, informazio honen tratamenduan lagun diezagun. Gakoa datuak nola lortu, antolatu, tratatu eta enpresa mailako ondorioak atera eta erabakiak hartzeko nahikoa garatu den analisia egiteko gaitasunean datza. Teknika analitiko hauen aplikazioak, onurak/hobekuntzak suposatu ditzazke mantenu prebentibo eta iragarpenean, produkzio gaitasunean, produktuaren eta zerbitzuaren kalitatean, kontsumo eta baliabideen optimizazioan...

Jardunaldian honako aditu hauek parte hartu dute: **Urko Zurutuza** (Datuen Analisia eta Zybersegurtasunerako ikerketa taldeko koordinatzailea, Mondragon Unibertsitatea), **Iñaki Pariente de Prada** (Bazkide sortzailea, Dayntic Legal), **Naiara Goia** (Senior Manager - Innovation & Technology, Mondragon Corporation), **Miguel Angel Veganzones** (Artificial Intelligence Zuzendaria, Sherpa.ai), **Ana Torres** (Big Data-ren Arkitekturaren Teknologa aditua, Tecnalia Research & Innovation), **Aitor Moreno** (Ibermática Berrikuntza Institutuko Inteligentzia Artifizialeko Departamenduko Arduraduna, Ibermática Berrikuntza Institutua), **Carlos Abad** (Zuzendari orokorra, ZIHUR fundazioa), **Aitor Arnaiz** (Informazio Inteligenteen Sistema Unitateko Zuzendaria, IK4-Tekniker) eta **Jon Salvidea** (Ko-Sortzailea eta negozio arloko Arduraduna, Savvy Data Systems).

Hamar adituak ondorengo kontzeptuez mintzatu dira: Big Data, Machine Learning, Adimen Artifiziala, Zibersegurtasuna, Legiria,... MONDRAGON Corporation-eko **Naiara Goiak**, industria inguruko erabileren kasuak aztertzeaz arduratu da. Horretarako MONDRAGONeko adibideak jarri ditu, non datuen ustiapen proiektuak helburu ezberdinetarako erabili diren: prozesuen optimizazioa, prozesu industrialen ezagutza eta monitorizazioa, kontsumoen aurreikuspenak, etab. Sherpa.ai-ko **Miguel Ángel Veganzonesek**, machine learning-en bi paradigma nagusienak azaltzen aritu da, tradizionala, urlertu ahal izateko fenomeno bat eraldatu nahi izan duena, eta gaur egungoa, adierazle nagusiena Deep Learninga dena eta arrakastaz aurreikustea helburua duena, aurreikuspenaren zergatia interpretatzeko beharrik gabe. Tecnalía Research & Innovation-eko **Ana Torresek**, Big Data, DevOps eta Cloud gaur egongo eraldaketa digitalaren mugarririk bezala kokatu ditu, erakundeei euren IT prozesuetan eraginkortasun eta lehiakortasun gorena ziurtatzen dizkietenak erremintak bezala definitu ditu. IK4-Tekniker-eko **Aitor Arnaizen** esanetan, Big Dataren kudeaketa eta azterketaren alde garrantzitsuenetako bat arkitektura egoki baten diseinu eta garapenean datza, euren azterketa eta antolaketa errazten duten datuen prozesamendu eta biltegitratzea, eta era berean arazo bakoitzeren ezaugarrietara egokitua egotea. Azkenik, Ibermática Berrikuntza Institutuko Inteligentzia Artifizialeko Departamenduko Arduraduna-k **Aitor Morenok**, Inteligentzia Artifizialeko teknikak RPA (Automatización automática de Procesos) sistemetara aldatzen ari direla gogoratu arazi du. Sistema hauek ingeniariak prozesu bat era autonomoan ateratzeko gai dira, teknikoei instalazio industrialetan gertatzen diren prozesuen fluxuen inguruan erabakiak hartzeko orduan lagundu ahal izteko, eraginkortasun ezen zergatiak azalduz, eta eraginkortasun eza horiek gutxitzen diren eszenategi berriak bilatuz.

## **Gipuzkoa Teknologikoa**

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkudeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero hiru jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, Gauzen Interneta, Big Data, 0.4 Industria, Blockchain, Cloud computing, Fabrikazio gehigarria...

### **Laguntzaileak**



### **Antolatzaileak**



**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347